

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

Literatura

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·

Literatura

LOURDES OÑEDERRA

FONOLOGIALARIA ETA IDAZLEA

“Irakurleaz ahazteko ariketa egiten dut idazterakoan”

‘Azken batean’ izenburupean, bere hirugarren eleberria kaleratu du Lourdes Oñederra idazle eta hizkuntzalariak. Emakumeak protagonista, besteak beste, ETAre indarkeriaz, familia harremanez, sexu abusuez eta isiltasunaz dihardu

ZIHHARA JAINAGA

HAMABI urteren ostean, Lourdes Oñederra (Donostia, 1958) idazleak *Azken batean* bere hirugarren eleberria argitaratu du Erein argitaletxearekin. Istorio intimoa bat da *Azken batean*, zaurien gainetik barrurantz begiratzen duen kontakizuna. Elisa eta Elixabete ama-alaben eta beraien sufrimendutik zein isiltasunetik idatzi du istorioa. Identitatea, bakardadea eta isiltasuna ardatz garrantzitsuak dira. ETAre gaiaz aritzeko zuen nola-bateko gogoa baliatu du zentsurarik gabe idazteko.

Zure hirugarren nobela da ‘Azken batean’. Aurrekoa, ‘Intemperies (Babes bila)’ 2013an argitaratu zenuen. Lehen, bestalde, 1999an. Patxadaz, eperik gabe, idaztea eta argitaratzea duzu gustuko? Eperik gabe idazten dut, bai. Denbora asko pasatzen dut zirriborroak, koadernoak, mapa modukoak egiten; material asko biltzen dut. Paper pusketetan joaten naiz istorio zatiak idazten, eta gero hori jostekak denbora asko hartzen dit. Idazketa prozesuak hain luzeak izateak badu istorioetan eragina, nirekin zahartzen dira istorioak eta hori gustatzen zait. Hala ere, nahiz eta denbora asko izan, ez ditut urte guzti hauek honetan eman. Unibertsitatean eskolak emateari utzi nion, funtsean, idazteko denbora izateko, nire buruarekin proba egin nahi nuen segidago idazteko, eta hala izan da kasu honetan.



‘Azken batean’ eleberria plazara-tu du Lourdes Oñederra idazle eta hizkuntzalariak. EREIN

Zein zen zure helburua ‘Azken Batean’ eleberriarekin?

Ez nuen helbururik, gehiago da kezka bat helburu bat baino. Barruko ezinegon bat. Pertsonaia nagusiekin hasi nintzen, ama-alabekin. Ez nago seguru, baina, beharbada, lehen apunteetan ama soilik ageri zen. Titulua, bestalde, kasu honetan argi neukan lehenengo gauzetakoia izan zen. Linguistikoki asko gustatzen zait, azken batean bizitza hori baita egun bat edo bi...

ETAre indarkeria da eleberrian jorratutako gaietako bat. Zuk zeuk zenion Ramon Saizarbitoriak behin adierazi zuela normala zela euskaraz idatzitako literaturan ETA presentego egotea haien biktimak baino. Gesto por la Paz elkarteko kide izan zinen, eta orain Gogoan-en ere aritzen zara. Alpatu duzun barne ezinegon horrek badu lotura ETAre biktimei eman zaien tokiarekin?

Idazten hasi nintzenean kezka ez zen hori izan, edo, behintzat, ez zen abiapuntu bat izan. Pertsonaia gorpuztu ahala berehala ateratzen, eta arkitektura osorako eman zidan. Ez diot bidea itxi. Nire ibilbideagatik kezka hori beti izan dut, baina protagonistaren sakontzean edo garapenean berehala ateratzen zen gauza bat izan zen: emakume donostiar bat, nire aurreko belauналdikoa, nire ama izan zitekeena... biktimen ahotsa baino, biktimeliko sentiberatasun hori dago eleberrian. Nire bizitzaren ibilbidean ez naiz oso ados egon ETAre ideiekin; eta gutxiago, praktikekin. Ikasle presoak ikustera joaten nintzen kartzeletara, eta bai, pena ematen zidaten, baina dudarik gabe askoz gertuago nengoen nire penetan eta sentimenduetan beste biktimen mundutik.

Irakurlea astintzea, asaldatzea, bilatu duzu neurri batean?

Eragile bat da, eta ezin da ukatu hor dagoela, baina irakurleaz ahazteko ariketa egiten dut idazterakoan, ariketa handia izaten da, eta horretan kontzentratzeak abdominalak egitea bezain bestekatzatzen du. Irakurlean pentsatzen dut, aldi berean ez pentsatzeko, eta benetan istorioan sartzeko. Hala ere, kasu honetan, irakurlea asaldatzea soilik gogoa balitz aspaldi egingo nukeen. Indarkeriaren gaiarekin ez dakit nobelak kalitatean irabazi edo galtzen duen, momenturen batean izan dut zalantza, nire mezu bat badagoe-lako, baina argi nuen eta utzi diot hor egoten. Gainera, balio izan dit egitura osoa bortxa gabe gorpuzteko.

Elisa eta Elixabete ama-alaben inguruko istorioa dakarzu. Idatzi izan dituzun eleberrietan pertsonaiei egiten diezu azpimarra. Idazketa prozesua pertsonaieetatik abiatzen duzu?

Hala da. Hasierako apunteetan beti daukat norbait, beste norbaitekin, beste norbaitez gogoratzen, maitemintzen...

Aurreko bi nobeletan bezala, kasu honetan ere protagonista nagusiak emakumezkoak dira. Emakumearen ikuspegia leku segurua da zuretzat?

Ez dut aukera egin. Ez dut probatu ea beste aukera nolakoa den; eta oraingoz, behintzat, ez dut asmorik. Oso normala iruditzen zait guk emakumeak hartzea, eta era berean oso deigarri egiten zait zenbat gizon dauden emakumeak protagonista egiten dituztenak. Behin Arantza Urretabizkaia iri entzun nion guk ere egin beharko genukeela gizonetako bat protagonista jarri, baina ez dakit...

Isiltasunak eta familia harremanek protagonismoa dute nobelan. Nola idazten da isiltasunaz eta gai deserosoez?

Oso zaila da isiltasunaz idaztea. Isiltasunaz hitz

“

Familiak ofizialki dira zorion iturri, baina batez ere zorigaitz iturri direla esango nuke

“

Idazketa prozesu luzeen eraginez, istorioak nirekin zahartzen dira eta hori gustatzen zait



egiteko modu bakarra esatea da. Familia harremanei dagokienaz, nonbait banuen beharra eta gogo pixka bat hortaz hitz egiteko. Bada zirikatzen nauden gai bat. Gure gizartearen familia inoiz zalantzan jartzen ez den instituzio bat da, ezin dena, eta berez zorion iturri dena. Ofizialki dira zorion iturri, baina batez ere zorigaitz iturri direla esango nuke. Ez dakit inoiz perfektuak diren, eta uste dut familien inguruan gezur asko dagoela.

Estiloiari dagokionez, xehetasunei arreta handia jartzen diezu idazterakoan.

Agian alferkeria izango da, baina ikusi egin behar dut idazten dudana, nire buruan pelikula bat dago denbora guztian, eta horregatik askoz errazagoa zait, adibidez, nire adinekora izatea, nik ezagutzen ditudan kaleak hartzea... pelikulak ere horrela ikusten ditut, batzuetan ia istorioa galtzeraino.

Nobelak ez dio hurrenkera lineal ohikoari jarraitzen. Narrazioan denbora atzera eta aurrera darabilzu.

Nire burua ere hala dabil. Idazteak lan handia ematen dit, eta behar dut nolabaiteko saria, zerbait konpentsatzen didana, eta kontaketa linealak ez dit batere erakartzen, ez dit saririk edota gogorik ematen. Ez dakit modu linealean bizitzen nik, horregatik zortea izan zen unibertsitatean lan egitea, eta egunak ez izatea astelehene-tik ostiralera berdinak. Bestela ezinegon sortzen dit, baina horrek ere egunero eguna asmatzen ibili beharra dakar. Kuriosoa da ze uste dut idatzi gabe ezin naizela bizi, literatura nire bizitzan bada atal inportante bat eta nire bizitzak ere bazkatzen du idazten dudana.

Idazterakoan ez omen duzu irakurlearengan pentsatzen, liburu orain beraien eskuetan dago eta hitza beraiek dutela aldarrikatu izan duzu. Ze bide egitea nahiko zenuke?

Irakurtzea nahi nuke, ez dut esan nahi askok, baina nahi nuke gutxieneko batek irakurtzea, egiten duenari iristea eta irakurtzen duenak euskaraz izatea. Gramatikarik eta hiztegririk gabe irakur zitekeen nobela bat idatzi nahi nuen, baina jende pila bat, euskaraz dakien jendea, ari zait galdetzen ea itzulpena noizko, eta horrek kezka sortzen dit. Batzuetan jatorrizkoa eta itzulpena batera argitaratzen dira eta hori oso kaltegarria da. Poz handia ematen dit norbaitek esaten didanean “lehenengo aldia da nobela bat irakurtzen dudala euskaraz”. Askok kezkatzen nau zenbat jende irakurtzen ote duen euskaraz. Literatura guztiekin dut kezka, baina bereziki euskararekin.

Bizitza profesionala hizkuntzalaritzari eta euskarari eskaini ostean erretiroa hartuta zaude unibertsitatean. Talaia horretatik nola ikusten duzu euskararen egoera?

Hizkuntzaren kalitateak kezkatzen nau, hots, erdaratzekak. Alde horretatik kezkatzen nau zenbat jenderi bost axola zaion, eta axola zaion jendarteari areago axola izatea estandartean balioak, intsigniak, hizkuntzaren beraren garatzea eta erabilera baino gehiago. Erabiltzeko, literatura egiteko, oraindik asko garatu behar da hizkuntza, eta hori egina, landuaz, garatzen da. Hor bidea zail ikusten dut. Bi mutur ikusten ditut: biktimismoa batetik, eta triunfalismoa bestetik; eta muturrean ez daude ez bata ez bestea justifikatuta. Badi-rudi euskararekin beti ari garelaz ekzaktak kentzen. Hizkuntzen ibilbideak oso luzeak izaten dira, eta orain dena presazkoagoa den garaian egoera asko aldatzen ari da eta ez naiz optimistegia. Halaber, badago hizkuntzaren harrokeria bat ingurukoak uxatzen dituen. Ez dut batere argi ikusten kontua, babestu nahi horretan ez dakit ez ote garen estuegiak.

Hizkuntzari erreparatu. Euskara batua hautatu duzu narratzailean eta euskalkia, berriz, elkarriketetan. Zergatik?

Baten batek errieta ere egin izan dit. Baina, kasu honetan, esaterako, istorioko protagonistek ezin diote elkarri “duzu” esan. Nobelak hasteko sinesgarria izan behar du idazten duenarentzat, eta uste dut ona dela euskararen maila ezberdinak bizirik egotea. Hizkuntzari zikintzen utzi behar zaio, hori da hizkuntza bizia. Batua bakarrik bizirik egotea ez da posible, euskalki ezberdinetatik bazkatzen da, eta horregatik hizkera maila laguntzekoetan euskalkiek sartu beharra dute. Zainduan, bestalde, batuak. Batu bakararak, bide batez.

2021ean Ortzadar saria jaso zenuen, eta bertan egindako hitzartzean adierazi zenuen literatura zuretzat askatasuna dela. Zer ematen dizu?

Oxigenoa. Oso pertsona urduria naiz, eta yogak edo meditazioak laguntzen duten bezala, literaturak ere laguntzen du. Izatez oso buru zientifiko-a dut, eta literatura beste mundu bat da. Askatasuna ematen dit lanean, bizitzan. Nobela idaztea bada eusten zaituen zerbait, baina, bestalde, espazio bat irekitzen dizu, beste dimentsio batean sartzen zara. Denbora guztian ari zaizkit istorioak okurritzen buruan, eta horrek bizitzeko balio dit.